TOLOSAKO UDALA

2022IGBA0021

# GOBERNU BATZARRA

**2022.09.13**

**Alkatea:**
**Olatz Peon Ormazabal**

**Bertaratutako zinegotziak:**
**Patxi Amantegi Zubiria**
**Xabier Balerdi Tolosa**
**Begoña Tolosa Mendia**
**Jose M. Villanueva Telleria**

**Ez da bertaratu:**
**Xarles Iturbe Pasaban**

**Idazkaria:**
**Begoña Garmendia Vazquez**

**Kontuhartzaile akzidentala:**
**Paulino Alonso Eraso**

**Tolosako udaletxean, bi mila eta hogeita biko irailaren hamahiruan, 12:30ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko:**

1. **Akta hau onartzea: 2022ko irailaren 7koa.**
2. **Correos-en eta Tolosako Udalaren arteko lankidetza hitzarmena onartzea, eta hura sinatzeko alkatea ahalordetzea.**
3. **«24.1 Iurramendi Pasealekua» (azpi)esparruko araubide orokorreko 13 udal etxebizitza tasatuei eta eranskinei behin-behineko kalifikazioa ematea.**
4. **«24.1 Iurramendi Pasealekua» (azpi)esparruko araubide bereziko 27 udal etxebizitza tasatuei eta eranskinei behin-behineko kalifikazioa ematea.**
5. **Udalsarea 2030, Udalerri Jasangarrien Euskal Sarearekin lankidetza hitzarmena onartzea.**
6. **Dekretu hauen berri ematea:**

   **2022/2090 Dekretua: 2022/21 faktura zerrenda.**

   **2022/2091 Dekretua: 2022/22 eta 2022/23 faktura zerrendak.**

   **2022/2127 Dekretua: 2022/24 faktura**

ESKU493de1d1-8884-4b1f-b305-fcc0b254eab9

**zerrenda.**

**2022/2160 Dekretua: 2022/26 faktura zerrenda.**

**2022/2184 Dekretua: 2022/27 eta 2022/28 faktura zerrendak.**

**2022/2206 Dekretua: 2022/29 eta 2022/30 faktura zerrendak.**

**2022/2283 Dekretua: 2022/31 faktura zerrenda.**

1. **AKTA HAU ONARTZEA: 2022KO IRAILAREN 7KOA.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2022ko irailaren 7an egindako ohiko batzarraren akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. **CORREOS-EN ETA TOLOSAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA, ETA HURA SINATZEKO ALKATEA AHALORDETZEA**

**1.- AURREKARIAK**

Lehena.- Correos Estatuko sozietate bat da, eta, besteak beste, posta-igorpeneko finantza-zerbitzua ematen du, posta-zerbitzu unibertsalari, erabiltzaileen eskubideei eta posta-merkatuari buruzko abenduaren 30eko 43/2010 Legearen azken xedapenetako hirugarrenean ezarritakoaren arabera. Zerbitzu hori interes ekonomiko orokorreko finantza-zerbitzutzat hartzen da.

Bigarrena.- Correosek posta-sare bat du, Espainia osoan zehar banatutako bulegoekin. Sare horren bidez, erabiltzaileei, besteak beste, posta-igorpeneko zerbitzuak eskaintzen dizkie.

Hirugarrena.- Tolosako Udala toki-erakunde bat da, eta bere baliabideen artean zerga propioak (zergak, tasak eta kontribuzio bereziak) eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuk daude, eta horiek kudeatzeko, biltzeko eta ikuskatzeko eskumenak ditu esleituta, TAOLen 106.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Laugarrena.- Tolosako Udalak tributu eta zuzenbide publikoko diru-sarrera horiek biltzeko —kobratzeko Estatuko Ogasunarentzat ezarritako prerrogatibak ditu, eta dagozkion administrazio-prozeduren arabera jarduten du, Toki Ogasunei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.2 artikuluaren arabera—, baditu hainbat erakunde laguntzaile, guztiak kreditu-erakundeak, Dirubilketako Erregelamendu Orokorrean (uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretua) ezarritakoaren arabera. Udala kontu baten titularra da

ESKU493de1d1-8884-4b1f-b305-fcc0b254eab9

erakunde horietako bakoitzean, eta zergapekoek haien zerga-zorrak eta zuzenbide publikoko beste batzuk kontu horretan sar ditzakete.

Bosgarrena-. Correosek bezeroei eskaintzen dizkien posta-igorpeneko modalitateetako batek aukera ematen du igorpenaren zenbatekoa kontu korronte batean sartzeko.

Seigarrena.- Udalak zergapekoei erraztu egin nahi die bere alde sortutako tributuen eta zuzenbide publikoko beste zor batzuen ordainketa, eta, horregatik, onartu nahi du zergapekoak kontzeptu horiek posta-igorpen baten bidez ordaindu ahal izatea, aginduta egin dezatela sarrera Udala bere erakunde laguntzaileetan titularra den konturen batean.

Aurreko guztia ikusita, eta kontuan izanik txosten juridikoak zein jarduneko kontuhartzaileak egindako txostena, udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I  D U**

**LEHENA.-** SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS, SA, S.M.E. erakundearekin, 40/2015 Legearen baitan, lankidetza hitzarmena onartzea.

**BIGARRENA**.- Hitzarmena Tolosako Udalaren izenean Olatz Peon Ormazabal alkateak sinatu dezan ahalordetzea.

**HIRUGARRENA.-** Hitzarmenaren edukia honako hau izatea:

***ESTIPULAZIOAK***

***LEHENA.- HITZARMENAREN HELBURUA***

*Honako estipulazio hauek kasu hauetarako baino ez dira: Udalak onartzen duenean bere alde sortutako tributuak edo zuzenbide publikoko beste sarrera batzuk ordaintzera behartuta dauden zergapekoek kontzeptu horiek posta-igorpen baten bidez ordaintzea, Udala titular duen konturen batean sartzeko.*

*Kasu horietan, posta-igorpeneko zerbitzua emateko, Correosek zerbitzu horren berezko araudia eta hitzarmen honetan jasotako zehaztapen teknikoak hartuko ditu kontuan.*

***BIGARRENA.- ARAUBIDE JURIDIKOA***

*Hitzarmen hau bat dator Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen (SPAJL) 47.2 c) artikuluan araututako hitzarmenekin; hau da, administrazio publiko baten, zuzenbide publikoko organismo edo erakunde baten eta zuzenbide pribatuko subjektu baten artean sinatzen direnekin.*

*Tolosako Udala administrazio publikotzat hartzen da, Espainiako Konstituzioaren 137. artikuluaren eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen (TAOL) 3.1 artikuluaren arabera.*

*Correos Estatuko merkataritza-sozietatea da, eta Estatuko Administrazio Orokorraren partaidetza osoa badu ere, Estatuko Industria Partaidetzarako Sozietatearen bidez*

ESKU493de1d1-8884-4b1f-b305-fcc0b254eab9

*(EIPS-SEPI), zuzenbide pribatuak arautzen du oso-osorik, salbu eta aurrekontuei, kontabilitateari, langileei, kontrol ekonomiko-finantzarioari eta kontratazioari buruzko araudia aplikatu behar zaien gaietan.*
*Aurrekotik ondorioztatzen da, beraz, Hitzarmen honen araubide juridikoa SPAJLn ezarritakoa dela, legez ezarritako baldintzak betetzen direlako.*

***HIRUGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA***
*Hitzarmen honetako xedapenak zorrotz betetzen direla bermatzeko, Jarraipen Batzorde bat eratu da, Tolosako Udaleko eta Correoseko kideek era paritarioan osatua.*

*Hauek izango dira Jarraipen Batzordeko kideak:*
- *Tolosako Udalaren aldetik: diruzaina eta zergabiltzailea.*
- *Correosen aldetik: Produktu eta Zerbitzuen zuzendaria eta Bulego Sarean Koordinazioan dauden Zeharkako Proiektuen Arloko arduraduna.*

***LAUGARRENA.- CORREOSEN ESKU-HARTZEAREN IZAERA***
*Correos ez da Udalaren erakunde laguntzaile bat zergak eta zuzenbide publikoko beste edozein diru-sarrera biltzeko.*
*Correos bere bezeroei posta-igorpeneko zerbitzua ematera mugatzen da.*
*Posta-igorpeneko zerbitzua erabiltzen duen posta-bezeroa Udalaren alde sortutako tributu bat edo zuzenbide publikoko beste sarrera bat ordaintzera behartuta egoteak ez du esan nahi Correosek esku hartuko duenik kontzeptu horiek biltzeko administrazio-prozeduran.*
*Posta-bezeroak posta-igorpena ezartzen duen data edozein dela ere, ulertuko da igorpenaren xede den zuzenbide publikoko sarrera edo tributua ordaindu dela aplikatu beharreko araudi publikoak zehazten duen datan.*

***BOSGARRENA.- POSTA-IGORPENAREN PREZIOA***
*Correosek posta-igorpeneko zerbitzurako ezarrita dituen tarifak kobratuko dizkie bezeroei, eta Udalak ez du inolako esku-hartzerik izango puntu horretan.*
*Informazio gisa, hitzarmen hau sinatzen den unean posta-igorpenaren indarreko tarifa 1,95 eurokoa da. Correosek tarifa hori eguneratu ahal izango du, eta behar adinako aurrerapenarekin emango dio Udalari eguneratzearen berri.*

***SEIGARRENA.- KONPROMISOAK ETA ERANTZUKIZUNAK***
*Correosek konpromisoa hartzen du bezero igorlea identifikatzeko eta egiaztatzeko, kontuan sartzeko aginduaren igorpena onartzeko eragiketa (OIC) egin aurretik, horretarako identifikazio-agiri fede-emailea, baliozkoa eta indarrean dagoena erabilita.*
*Igorlearen datu guztiak, igorpena egiteko beharrezkoak eta nahitaezkoak, Correosen sistema informatikoetan erregistratuta geratuko dira, bidali beharreko igorpenaren zenbatekoa edozein dela ere. Igorlea eta zergapekoa bat ez badatoz, azken hori ere identifikatu egingo da.*
*Correosek argi eta garbi jasoko ditu posta-igorpenaren bidez ordaindu nahi den zorra identifikatzeko behar diren datuak, kontuan sartzeko modalitatearen bidez, eta jaso egingo du Tolosako Udalak eman eta bezeroak aurkezten duen ordainketa-agirian —*

ESKU493de1d1-8884-4b1f-b305-fcc0b254eab9

*ordaintzeko muga-eguna indarrean izan behar du— adierazitako informazioa. Datu horiek barra-kodearen bidez lortuko dira.*
*Posta-igorpenaren gastuak igorpenaren igorleak ordainduko ditu osorik, onarpenaren unean.*
*Correosek Tolosako Udalaren kontu korrontera bidaliko du bere bulego-sare osoko eguneroko eragiketen baturaren zenbatekoa. Kontu horretan ordaintzeko agindua emango da eta ordainketa bera egingo da kontuan sartzeko agindua (OIC) emateko eguneroko igorpen-eragiketen kontabilitate-itxieraren ondorengo 72 orduetan.*

*Correosek, bere sistema propioen bidez, fitxategi bat bidaliko dio Tolosako Udalari, bere sarean onartutako igorpen bakoitzari buruzko informazio zehatz eta osoarekin bere kontuko zorrak eta pagamenduak ordaintzeko. Fitxategi horretan, onartutako igorpen guztien zenbatekoa, zorraren identifikazioa eta zergapekoaren identifikazioa jasoko dira, Udalak lan egiten duen banku-koadernoaren formatuaren arabera.*

*Nolanahi ere, eta Udalak lan egiten duen banku-koadernoa edozein dela ere, zeina hitzarmen honetan aplikatzea adostu duten bi aldeek, Udalak badaki Correos ez dela finantza-erakunde bat.*
*Correosek, baldin eta hitzarmen honetan aurreikusitako estipulazioak bete baditu eta langileen arduragabekeria larririk ez badago, ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik Tolosako Udalaren aurrean, udal zergak edo zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuk biltzeko administrazio-prozedurarekin zerikusia duen edozein gorabehera dela eta.*
*Aurreko hori alde batera utzi gabe, Correosek Tolosako Udalarekin lankidetzan jardungo du gerta daitezkeen gorabeherak konpontzeko.*

***ZAZPIGARRENA.- CORREOSEK UDALARI ZERBITZUAK EMATEA***
*Aurreko klausulan ezarritakoari kalterik egin gabe, Correos ez dago behartuta Udalaren aldeko zerbitzurik egitera. Correosek eskaintzen duen zerbitzu bakarra da bere bezeroarentzako posta-igorpeneko zerbitzua.*

***ZORTZIGARRENA.- ORDAINAGIRIAK ETA UDALAREN ZUZENBIDE PUBLIKOKO BESTE BETEBEHAR BATZUK***
*Udalaren betebeharra eta erantzukizuna da zerga-bilketari eta beste edozein diru-sarrera publikoren bilketari buruzko zuzenbide publikoko araudiak ezartzen dizkion betebehar guztiak betetzea.*
*Zehazki, adibide gisa eta zehaztasunetan sartu gabe, Udala behartuta dago posta-igorpenaren bidez ordaintzen den zorraren ordainagiria zergapekoari ematera. Correosek bezeroari helarazten dion posta-igorpenaren librantza edo frogagiria ez da Udalean duen zerga-zorra edo zuzenbide publikokoa ordaindu izanaren frogagiria.*

***BEDERATZIGARRENA.- KOMUNIKAZIOAK***
*Udalaren erantzukizun esklusiboa da egoki iritzitako komunikazioak egitea bere erakunde laguntzaileei, jakinarazteko udal zerga-zorrak edo zuzenbide publikoko zorrak ordaindu daitezkeela Udalaren titulartasuneko kontuan posta-igorpen baten bidez.*

ESKU493de1d1-8884-4b1f-b305-fcc0b254eab9

*Era berean, Udalaren erantzukizun esklusiboa da egokitzat jotzen dituen komunikazio publiko edo pribatuak egitea, tributuen eta zuzenbide publikoko gainerako zorren zergapekoek jakin dezaten aukera dutela haiek posta-igorpen bidez ordaintzeko, igorpena Udala erakunde laguntzaileetan titular den kontuetako batera zuzenduta.*

***HAMARGARRENA.- ORDAINSARIA***

*Hitzarmen honek ez die inolako ordainsaririk sortzen aldeei.*
*Horrez gain, adierazi behar da Hitzarmen honek ez duela ondorio ekonomikorik eta finantzariorik, ez baitago Correosentzat edo Udalarentzat gastu-konpromisorik sartuta, lehen adierazi den bezala.*

***HAMAIKAGARRENA.- DATUEN BABESA***

*Goiburuan ageri diren erakundeek tratatuko dituzte, hurrenez hurren, alderdien ordezkarien datu pertsonalak, bai eta haien langileenak eta harreman juridiko formalizatuan esku har dezaketen gainerako harremanetarako pertsonenak ere, eta erakunde horiek modu independentean jardungo dute haien tratamenduaren arduradun gisa. Datu horiek tratatuko dira hitzarmen honetan jasotako eskubide eta betebeharrak betetzeko, interesdunei eragin diezaieketen erabaki automatizaturik hartu gabe. Ondorioz, tratamenduaren oinarri juridikoa aipatutako harreman juridikoa betetzea da, eta helburu hori ezinbestekoa da hitzarmen hau gauzatzeko.*
*Datuak mantenduko dira hemen hitzartzen den harreman juridikoa indarrean dagoen bitartean, eta aldeek eta aldeek legez edo kontratuz datu horien berri ematera behartuta dauden hirugarrenek baino ez dituzte tratatuko (adibidez, hirugarren zerbitzu-emaileen kasuan, hitzarmenaren kudeaketarekin edo egikaritzarekin lotutako zerbitzuren bat agindu bazaie).*
*Aldeetako interesdunek eskubidea dute, kontuan izanda indarrean dagoen legeriak ezarritako baldintzak, haiei buruzko datu pertsonalak irispidean izateko, zuzentzeko edo ezerezteko, tratamendua mugatzeko edo haren aurka egiteko, edo datuok transferitzeko; horretarako, idatziz jo behar dute aldeetako bakoitzera, goiburuan adierazitako helbideak baliatuta. Era berean, harremanetan jar daitezke datuen babeserako izendatutako ordezkariekin, helbide hauetara jota: dpdgrupocorreos@correos.com edo zergabilketa@tolosa.eus; halaber, erreklamazioa aurkez dezakete Datuak Babesteko Espainiako Agentzian edo beste agintaritza eskudun batean.*
*Aldeek berariaz konpromisoa hartzen dute langileei eta harremanetarako gainerako pertsonei klausula honetako baldintzen berri emateko, eta kontrako aldeak ez du kalterik jasango betebehar hori ez betetzeak ekar ditzakeen kalteak direla eta.*
*Ordainketei buruzko informazioari dagokionez, hitzarmen honen SEIGARREN estipulazioan adierazten den bezala, igorlearen datu guztiak, igorpena egiteko beharrezkoak eta nahitaezkoak, Correosen sistema informatikoetan erregistratuta geratuko dira, eta igorlea eta ordaintzeko betebeharra duena bat ez badatoz, azken hori ere identifikatu egingo da. Informazio hori Correosen sistema informatikoetan gordeko da, eta hark sekretu profesionala gorde beharko du, informazio horri buruzko isiltasun eta konfidentzialtasun osoz. Gainera, beharrezkoak diren neurri tekniko eta mota guztietakoak hartuko ditu tratamendu-sistemen eta zerbitzuen konfidentzialtasuna, osotasuna, erabilgarritasuna eta erresilientzia iraunkorra bermatzeko, gorabehera fisiko edo teknikorik izanez gero datu pertsonalen*

ESKU493de1d1-8884-4b1f-b305-fcc0b254eab9

*eskuragarritasuna eta sarbidea azkar leheneratzeko, eta tratamenduaren segurtasuna bermatzeko ezarritako neurri teknikoen eta antolaketa-neurrien eraginkortasuna erregulartasunez egiaztatu, ebaluatu eta baloratzeko. Era berean, irispidean duen informazioa dela-eta, konpromiso hauek hartzen ditu.*

*- Informazioa tratatzea eta hara iristea hitzarmen honen xederako soilik.*

*- Zaintza leiala eta arretatsua egitea, eta, horrekin batera, bere gain hartzea hirugarren pertsonen esku inola ere ez jartzeko betebeharra.*

*- Zaintza-lanak egitea, galtzea, lapurtzea, suntsitzea edo behar ez bezala eskuratzea gerta ez dadin.*

*- Ez erabiltzea kontratatutako lanei buruzko daturik beretzat, ez ematea hirugarrenei, eta ez argitaratzea lanen edukia, ez osorik, ez zati bat.*

*- Hirugarrenei ez lagatzea, ez komunikatzea, ez sartzen uztea, eta haien gaineko sekretu profesionala gordetzea.*

*- Bermatzea zerbitzua emateko edozein fasetan parte hartzen duten pertsonek betebehar horiek ezagutzen eta ezagutzen dituztela eta konpromisoa hartzen dutela konfidentzialtasuna errespetatzeko eta segurtasun-neurri hauek betetzeko. Neurri horien berri eman behar zaie berariaz eta modu egokian.*

*- Erakunde honen eskura izatea aurreko apartatuan ezarritako betebeharra betetzen dela egiaztatzen duten agiriak.*

*- Bermatzea Correosek beteko dituela datuak babesteko araudiaren arabera dagozkion betebeharrak.*

***HAMABIGARRENA.- HITZARMENA EZ BETETZEA, SUNTSIARAZTEA, AZKENTZEA ETA ALDATZEA***

*Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen (SPAJL) 51. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hauek dira Hitzarmen hau suntsiarazteko arrazoiak:*

*i. Sinatzaile guztien ahobatezko erabakia.*

*Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebehar edo konpromisoak ez betetzea.*

*Halakoetan, aldeetako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahalko dio bereak bete ez dituen aldeari, epe jakin baten barruan bete ditzan betegabetzat jotako betebehar edo konpromisoak. Errekerimendua komunikatuko zaie Jarraipen Batzordeko ordezkariari eta sinatu duten gainerako aldeei.*

*Errekerimenduan azaldutako epea igaro eta ez betetzeak irauten badu, errekerimendua igorri duen aldeak alderdi sinatzaileei jakinaraziko die badagoela hitzarmena suntsiarazteko arrazoia, eta hitzarmena suntsituta dagoela ulertuko da. Hitzarmena arrazoi horregatik suntsiarazten bada, gerta daiteke sortutako galerak ordaindu behar izatea, Jarraipen Batzordeak ezarritako irizpideen arabera.*

*Aldeetako batek hitzarmen honen arabera hartutako betebeharrak betetzen ez baditu, aplika daitekeen araudian ezarritakoaren arabera arautuko dira balizko kalte-ordainak.*

*Aldeek ez dute elkarrekiko betebeharrik izango ezusteko edo ezinbesteko kasuetan. Nolanahi ere, ezinbesteko kasutzat hartuko dira suteak, uholdeak, gerrak, ekintza bandalikoak edo terrorismo-ekintzak, agintaritza eskudunak jarduerak debekatzea eta, oro har, saihestezinak diren guztiak. Ezinbesteko kasua alegatzen duen aldeak behar bezala justifikatu beharko du.*

ESKU493de1d1-8884-4b1f-b305-fcc0b254eab9

*Aldeetako edozeinek hitzarmena salatzea, beste aldeari idatziz jakinarazita, burofax bidez, ebazpena hartu baino bi hilabete lehenago..*
*Erabaki judiziala.*
*Aurrekoez bestelako edozein arrazoi, hitzarmenean edo beste lege batzuetan aurreikusita badago.*
*Hitzarmen honen babesean indarreko jarduketaren bat egiten bada, berariaz ezarri beharko da epe luzaezin bat aldeek hura gauzatzeko Hitzarmena suntsiarazten denean.*
*SPAJLren 49 g) artikuluan ezarritakoaren arabera, hitzarmen hau aldatzeko, sinatzaileen ahobatezko adostasuna beharko da.*

***HAMAHIRUGARRENA.- HITZARMENA ERREGISTRATZEA ETA ARGITARATZEA***
*Hitzarmen hau herritarren eskura jarriko da Gardentasunaren Atarian, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1.b) artikuluan xedatutakoa aplikatuz.*
*Tolosako Udalak Hitzarmen hau argitaratu eta erregistratzeko indarrean dagoen legeriak agintzen dizkion konpromisoak beteko ditu.*

***HAMALAUGARRENA.- HITZARMENAREN INDARRALDIA***
*Sinatzen den egunean jarriko da Hitzarmena indarrean, eta lau urteko indarraldia izango du.*
*Hitzarmen hau urtero luzatu ahal izango da beste lau urtean, aldeek berariaz hala adosten badute. Akordio hori idatziz formalizatu beharko da, hitzarmena amaitu aurreko edozein unetan. Arestian adierazitakoaren arabera jokatu ezean, hitzarmena suntsitutzat joko da.*

***HAMABOSGARRENA.- LEGERIA APLIKAGARRIA ETA JURISDIKZIOA***
*Hitzarmen hau Espainiako legeriak arautuko du.*
*Hitzarmen honetan ezarritakoaren interpretazioari eta/edo gauzatzeari buruzko edozein desadostasun ebazteko, bi aldeek Tolosako Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen dute haien burua, eta uko egiten diote, berariaz, dagokien beste edozein forori.*

**LAUGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS, SA, S.M.E. erakundeari eta Kontuhartzailetzari.

3. **«24.1 IURRAMENDI PASEALEKUA» (AZPI)ESPARRUKO ARAUBIDE OROKORREKO 13 UDAL ETXEBIZITZA TASATUEI ETA ERANSKINEI BEHIN-BEHINEKO KALIFIKAZIOA EMATEA**

Gaia mahai gainean geratu da.

ESKU493de1d1-8884-4b1f-b305-fcc0b254eab9

4. «**24.1 IURRAMENDI PASEALEKUA» (AZPI)ESPARRUKO ARAUBIDE BEREZIKO 27 UDAL ETXEBIZITZA TASATUEI ETA ERANSKINEI BEHIN-BEHINEKO KALIFIKAZIOA EMATEA.**

Gaia mahai gainean geratu da.

5. **UDALSAREA 2030, UDALERRI JASANGARRIEN EUSKAL SAREAREKIN LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA.**

**1- AURREKARIAK**

Tolosako udalbatzak, 2002ko abenduaren 9an, Udalsarea 21, Udalerri Jasangarrien Euskal Sarea osatzeko lankidetza hitzarmena onartzea erabaki zuen.

Tolosako Udala, autonomia erkidegoko beste 15 udalekin batera, sare honen aitzindaria izan zen. Sarea administrazio publikoen arteko koordinazio-foro izateko sortu zen, udal mailan jasangarritasuna sustatu, eta euskal udalerrietan Tokiko Agenda 21 ezartzeko helburuarekin.

Gaur egun, Udalsarea 21 203 udalerrik osatzen dute. Horiez gain, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak, Garraio Zuzendaritzak, URA agentziak eta Osasun Sailak parte hartzen dute. Sare honen kudeaketaz eta dinamizazioaz IHOBE sozietate publikoa arduratzen da.

2016ko ekainaren 20an, 2016/1174 Alkate Dekretuz, hitzarmen hau berrestea onartu zen.

2019an, sareak izen berria hartu zuen: Udalsarea 2030 Udalerri Jasangarrien Euskal Sarea, bere kideen ibilbidearekin bat etorriz eta bere helburuak 2030 Agendaren jarraibideekin lerrokatuz.

2022ko apirilaren 11n, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailetik mezu bat bidali zuten Udalsarea 2030 Udalerri Jasangarrien Euskal Sarearekin hitzarmena berritzeko, hitzarmen hauek, gutxi gorabehera, 4 urtez behin berresten direlako.

2022/07/12an Ingurumen eta Landa eremuko teknikariak aldeko txostena egin zuen.

2022/08/23an Idazkaritzako AOTak aldeko txosten juridikoa egin zuen.

2022/09/08an kontuhartzaileak fiskalizazio tramitea itxi zuen, fiskalizazio txostenik ez zegokiola adierazita.

ESKU493de1d1-8884-4b1f-b305-fcc0b254eab9

## 2- AZTERKETA TEKNIKOA

### 2.1 Ingurumen eta Landa eremuko teknikariaren txostena

2022/07/12an, Ingurumen eta Landa eremuko teknikariak Tolosa Udalsarea 2030 sarean sartzearen aldeko txostena egin zuen

➢ **Hitzarmenaren xedea:**

Hitzarmen honen xedea da kooperazio- eta lankidetza-esparru bat ezartzea Euskadin tokiko jasangarritasuna Udalsarea 2030 Udalerri Jasangarrien Euskal Sarearen bidez bultzatzeko.

Sareak izaera parte-hartzaile eta irekia du; izan ere, kide berrien borondatezko atxikimendua
sustatzen du eta izaera dinamikoa ematen dio, partaide guztiak jasangarritasunaren alde inplikatuta.

➢ **Udalen konpromisoak eta eginkizunak:**

1- *2030 Agenda bide-orri gisa erabiltzea tokiko plangintza eta ekintzarako, eta GJHen araberako ikuspegia udal-politika eta -kudeaketan txertatzea.*

Atal honetan aipatu behar da, Udalak 2017. urtean onartu zuen Tolosatzen 2017-2027 plan estrategikoko ekintzak bat datozela GJHen araberako ikuspegiarekin.

2- *Aurrera egitea, modu gradualean, Tokiko 2030 Agendaren prozesuen ezarpen-lanetan, Udal bakoitzaren konpromiso politiko gisa eta etengabeko hobekuntzarako konpromiso gisa, udalerriak eta/edo eskualdeak garapen jasangarriari egiten dion ekarpen gisa.*

3- *Kargudun politiko bat eta ordezko bat izendatzea Sarerako ordezkari; baita interlokuzio teknikorako pertsona bat ere izendatzea.*

4- *Sarearen jarduera eta foroetan modu aktiboan parte hartzea edo ordezkaritza dagokion eskualde erakundeari delegatzea, Sarearen plan estrategikoetan eta kudeaketa planetan ezartzen diren helburu espezifikoak betetzen laguntzeko.*

5- *Kontaktuak, informazioa, ezagutza, materiala eta esperientziak modu proaktiboan ekartzea eta konpartitzea, Sarearen liburutegi birtuala zabaltzeko eta haren adimen kolektiboa handitzeko. Ihobek horren banaketa kudeatuko du.*

ESKU493de1d1-8884-4b1f-b305-fcc0b254eab9

*6- Kolaboratzea eta Sarearen eskari eta beharrei erantzutea, eta, zehazki, udal politika eta antolaketari buruzko bi urtetik behingo inkesta betetzea, Euskadiko Tokiko Garapen Jasangarriaren Behatokirako.*

7- Hitzarmen honek ez dakarkio Udalari konpromiso edo ondorio ekonomikorik. Lehen Udalsareako partaide izateagatik kuota bat ordaintzen bazen ere, 2016tik aurrera ez da kuotarik ordaindu behar.

8- *E-mugi* plataforma bidezko ingurumen adierazleen datu trukaketa.

IHOBEk sortutako e-mugi plataformaz baliatuz, Ihobek tokiko izaera duen informazioa eskainiko die Sarearen kide diren toki-erakundeei. Bestalde, Ihobek, Euskadiko Garapen Jasangarriaren Tokiko Behatoki gisa, ustiatu ahal izango du udalak edo, hala dagokionean, eskualde-erakundeak *e-mugi*n duen informazioa.

9- Akordio honekin zerikusia duen informazioaren komunikazio publikoak sarearen logoak eta hari buruzko erreferentziak txertatu beharko ditu, estilo eskuliburuak xedatzen duenarekin bat etorriz. Hedakuntzari ekin aurretik, horren berri eman beharko zaio Sarearen Idazkaritza Teknikoari.

➢ **Indarraldia**

Akordio hau lehenengo atxikimendua balioztatzen den egunean sartuko da indarrean. Akordioak 4 urteko indarraldia izango du, egun horretatik aurrera.

➢ **Tolosako Udalarentzat hitzarmenaren onurak**:

Sare honen partaide izateak onura hauek ditu:

- Jasangarritasunaren eremuan esperientzia eta informazio baliotsuen trukea ahalbidetzea administrazioen artean.
- Gai jakinak lantzeko udalerrien arteko lantaldeak osatzeko aukera.
- Dirulaguntza eta arloarekin lotuta dauden lege eta irizpide berrien inguruko informazioa jasotzea.

**<u>2.2 Txosten juridikoa</u>**

2022/08/23an Idazkaritzako AOTak  txosten juridikoa egin zuen.

Hitzarmenak izan behar duen edukia 40/2015ko Legearen 49. artikuluan dago arautua:

ESKU493de1d1-8884-4b1f-b305-fcc0b254eab9

Aurreko artikuluko 1. zenbakian aipatzen diren hitzarmenek barnean hartu beharko dituzte gai hauek, gutxienez:

a) Hitzarmena sinatzen duten subjektuak zein diren, eta alderdietako bakoitzak zer gaitasun juridikorekin jarduten duen.

b) Zer eskumenetan oinarritzen den administrazio publikoaren, hari lotutako edo haren mendeko organismo publikoen eta zuzenbide publikoko entitateen edo unibertsitate publikoen jarduketa.

c) Hitzarmenaren xedea eta subjektu bakoitzak hura betetzeko egin beharreko jarduketak, lortutako emaitzen titulartasuna azalduta, hala badagokio.

d) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebehar eta konpromiso ekonomikoak, halakorik badago; haien urtekako denbora-banaketa adierazi beharko da ,bai eta dagokion aurrekontuari zehazki egotziko zaiona ere, aurrekontu-legeriak xedatu duenaren arabera.

e) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebehar eta konpromisoak ez betetzeari aplikatu beharreko ondorioak, eta, hala badagokio, ez betetzetik ondoriozta daitekeen kalte-ordaina zehazteko irizpideak.

f) Jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoak, hitzarmenaren betearazpenari eta sinatzaileek beren gain hartutako konpromisoei aplikatzekoak. Mekanismo horrek ebatziko ditu hitzarmenak direla eta plantea daitezkeen interpretazio- eta betetze-arazoak.

g) Hitzarmena aldatzeko araubidea. Berariazko araurik ez badago, sinatzaileen ahobatezko erabakia beharko da hitzarmenaren edukia aldatzeko. h) Hitzarmenaren indarraldia, honako arau hauek kontuan hartuta:

1.a Hitzarmenek iraunaldi zehaztua izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeagoa aurreikusten ez den arau bidez.

2.a Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik, edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea. Estatuaren Administrazio Orokorrak edo haren mendeko edo hari lotutako erakunde publikoetako batek eta zuzenbide publikoko entitateetako batek sinatutako hitzarmenen kasuan, luzapen horren berri eman beharko zaio Lankidetza Organo eta Tresnen Estatuko Erregistro Elektronikoari, zazpigarren xedapen gehigarrian aipatzen baita.

ESKU493de1d1-8884-4b1f-b305-fcc0b254eab9

50. artikuluak hau dio:

Hitzarmenak sinatzeko nahitaezko izapideak eta haien ondorioak.

1. Autonomia-erkidegoetako legeriak aurreikus ditzakeen berezitasunak gorabehera, hitzarmenak justifikazio-memoria bat beharko du, zeinetan aztertuko baitira hitzarmenaren premia eta egokitasuna, eragin ekonomikoa, dena delako jardueraren kontratuz bestelako izaera, eta lege honetan aurreikusita dagoena betetzea.

2. Gainera, Estatuaren Administrazio Orokorrak edo hari lotutako edo haren mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek sinatzen dituzten hitzarmenei hauek erantsi beharko zaizkie:

a) Zerbitzu juridikoaren txostena. Ez dago txosten hori zertan eskatu hitzarmena bat badator dagokion zerbitzu juridikoak aurretiaz txostena egin dion eredu normalizatuarekin.

b) Aplikatu beharreko araudiak ezartzen duen beste edozein txosten nahitaezko.

